

colaboraciones

Aizarnazabal lekuko

Herri euskaldunik gabe Euskal Herririk ez!

«Udal elebakarren eguna» ospatu genuen Lizartzan. «Udal euskaldunen eguna» ospatuko dugu datorren maiatzaren 5ean Aizarnazabalen.

Aitortu beharra daukat ni neuz poztu egin naizela Udal elebakarren «izena» utzi eta «Udal Euskaldunena» hartu dutenean.

Udal elebakarrak! Ba zuen eta badu indarrak, slogan gisa: Adierazpen handikoa eta erasan bizikoa da. Euskararen berreskurapen osoaren aldeko jarrera tinkoaren seinale izateaz gain, horretarako oinarri soziolinguistiko jakina (lurraldekotasuna) baieztatzen du, eta helbururako bide politiko-administratibo zuzenekoak markatzen.

Slogana zen aurrenik, gogo bizi baten suspertzaile eta asmo tinko baten seinale. Proiektuaren gidatzaile eta erantzaitzat erabili zuten mugimenduaren slogana antolatzailerik lehen hilabeteetan. Eta agian hortxe sortu zen nahasketa: Zenbaitek erakunde berri baten izentzat hartu zutelako slogana, honek benetako izenetik baino ezizenetik gehiago eduki ohi duela konturatu gabe.

Eta hortik, slogan soila programa jakin baten titulutzat salatzera jo zuten: Elebakartasunaren politika atzerakoa dela..., esklusio-

bista dela..., zuzengabekeriazkoa dela..., probetasun kulturala dela..., estukeria mentala dela... Eta hasierako mugimendu hura probokazioz eta agresioz hartu zuten.

Baina orduko asmoa gaurko errealitate bihurtu denean, sloganak izenari utzi dio lekua: «Udal Euskaldunak». Nahasketa eta salaketa gaitzeko balioko ahal du!

Baina besterik dago tartean. Udal elebakarrak asko bait daude Euskal Herrian, Espainian bezala; eta ez dira, jakina, euskaldunak. Horregatik oso argigarria gertatzen da «Udal Euskaldunak» izena.

Bat gatoz, beraz, gaurko munduaren zabaltzeak, eta Europaren eratzak eta beste hainbat arazoik, gizon-emakume modernooi, espainolei, frantsesci eta euskaldunoi, hizkuntza bat baino gehiago jakitea eskatzen dituzela; eta familiariek eta eskolek eta udalek eta diputazioek eta Eusko Jauriaritzak eta Nafarroako Gobernuak eta Departamenduko agintariek herritarren eleaniztasuna bultzatu eta lagundu behar dutela.

Baina aldi berean, bat beharko dugu etorri, normalena eta bidezkoena Lizartza eta Bermio, eta Donostia eta Bilbo, udal euskaldunak izatea dela, Sotomayor eta

Toledo gazteleradunak eta Lixieux eta Paris frantsesdunak diren bezala.

Euskal Herrian garrantzizkoak ez dira, ordea, Udal Euskaldunak, udalerririk euskaldunak baizik. Hauen zerbitzutan daude haiek: Herrietako euskararen normal-kuntza osoari ofizialki eta instituzionalki erantzuteko, eta horien euskarazko biziera bideratu eta eratzeko.

Izan ere badirudi euskaldun guztiok bat gatzela ez dagoela Euskal Herriko euskararik gabe. Areago joan gaitzkeela uste dut orain, eta denok bateratu beste helburu honetara: Ez dago Euskal Herriko Herri Euskaldunik gabe!

Ez da hori hitz-joko soila. Eta ez dago soziolinguistika handirik jakin beharrik horretarako, ezta hizkuntz politikatan trebatua izan beharrik ere. Bi esaldiak, bata bezain bestea, dira erabat berezkoak eta zentzuzkoak: Euskararik gabe Euskal Herriko Herri Euskaldunik gabe.

Horra datorren igandeko Aizarnazabaleko jaialdieran esanahia: Herri Euskaldunen festa, Euskal Herri Euskaldunen etorkizuneko jai handia bideratu eta antolatzeko.

Paulo AGIRREBALTZATEGI

Ikasleen istripuak eta irakasle errudunak

Egun gutxi barru hor kalera-tuko da orain bi urte maiatzaren 5ean Urduñako mendibidean istripu baten ondorioz paraplejiko gelditu zen ikasleari buruzko behin betiko sententzia. Urriaren 29an Bilboko epaitegian emandako sententziaren arabera 140 milioi pezeta inguru eskatzen zitzaizkien hiru andereñoi. Maiatzaren 3an aztertu da erre-kurtsua Bilboko epaitegian.

Aipatu sententzia eman zen egunetan zirrara handia sortu zuen, eskola eta ikastolako guraso eta irakasleen artean bereziki. Baina, hau gaur eguneko berrien patua! Laster galdu zuen egunkariaren interesa eta une batetik bestera arazoa jadanik ez zen arazo. Egunkarietan ageri ez dena, ez da existitzen.

Baina ez, arazoak hortxe segitzen du, eta ogibidez irakaskuntzara dedikatzen garenontzat latza da. Basuriko ikastolako andereñoen kasuan batek jakin zenbat samin eta amets gaizto eragin zuen. Eta antzeko historia larri bat edozein momentutan eta edozein lekutan berriro liteke: jolas-lekuan, laborategian, jantokian, autobusean, ikasgelan... edo beste itereara batetan.

Kasu honi buruzko eritzia or-daindu behar horretan zegoen. Eta nire ustez ez da horrela: Euskal Gobernuak edo Seguru etxeren batek indemniazioei aurre eginda ere, arazoak funtsean hor segitzen du. Eta hori bi arrazoi-gatik, gutxienez:

- Antzeko egoera edo istripua berriz ere oso litekeena delako, eskola populazioaren karakteristikak gogoan hartuz gero.
- Istripua jasan duenari dagoz-kion indemniazioak lortzeko sententzia batek irakaslea «errudun» deklaratu behar duelako.

Eta hemen hasten da gure kalbarioa. Bilboko epaitegiak mar-txoan kaleratu zuen sententzian argi ikusten da helburua ikasle el-barriarentzat eta haren gurasoen-tzat diru indemniazioa lortzea delaa. Baina nori helduko zaio diru hori kendu ahal izateko? Le-gaeren aurrean «errudunik» erra-zena irakaslea da nonbait.

Hori horrela izank nahikoa izango da nola edo halako arrazo-namendu bat. Sententziaren «con-siderando»-etan probatutzat ematen da:

— Urduñako igoera berez (de por sí) arrisksua dela; ez dakit gogotan hartu den igoera hori ur-tero istripua jasa zen adin be-reko ehundaka eskolakumek egin ohi duela eta aipamen bereziko gertakizunik gabe beti.

— 77 ikasleako kopurua gehiegi omen zen hiru andereñoen ar-dura hutsen egoteko (cuidado exclusivo). Ez dezagun ahaztu, bestalde, gaur bezala indarrean dauden ratioak ikasle kopuru hor-rrerentzat irakasle horiek seinala-tzen dituztela.

Aipaturiko sententzia hura irak-urriz horrelako eta beste mila burutapen sortzen zaizkio guri. Nolanahi dela ez dagokigu bati sententzia hura teknikoki zuzena

den ala ez erabakitzea. Baina har-rigarri gertatzen da nola senten-zia horretan istripuaren erantzule-ak seinalatu nahi direnean ez den gogotan hartzen umek egin behar zuten bidea, ikasle eta irak-asleen kopurua eta egun bi haie-tako egitarau guztia aurretiaz araututa zeuden eta guti horretaz zitaizkien hiru andereñoi. Hez-kuntzako Delegazioko arduradu-nak, Bizkaiko Diputazioko Kultur Departamendua eta azken baten Euskal Gobernu bera.

Uste duzue horietariko nor-baiten partetik egon zela nolabai-teko oharririk irteera hark eduki zezakeen arriskua gogoratu? Kia. Ikastolak oso gauza positi-boatzat eman zuten; Hezkuntzako Delegazioko ikasleak gisa horre-tarako itereak egitera animatu zuten; Bizkaiko Diputazioko Kultur Departamendua atepetke haietara joatera gonbidatu gintuen inguruarren egokia adie-ratzea eta Eusko Gobernuak lan-gutua ekonomikoak eman zituen.

Gaur da eguna, oraindik, Ba-sauriko ikastolako umek egin hartan egin zuten itereara berberak eta baldintza berdinetan egiten jarraitzen dena. Eta burla dirudien arren, nire begien aurrean daukat orainxe Diputazioko berriro Ur-duñako atepetxera joateko bidali digun gonbitea.

Baina ez, sententzia irakurriz ageri den utzikeria (negligencia) bakarria hiru andereñoena da. Eta hori oso gogorra da. Gizartearen aurrean gu ezin gaitzeko, legeak tramite hori beharrezko duela, «errudun» atara, zeren azkene-rako «erruduntzat» hartzen gaitz-te bestee eta «errudun» ikus dezakegu gure burua.

Edozein lanbidetan bezala, irak-skuntzako langileak egin de-zake oker bere lana eta orduan har daitezela hartu beharreko neurriak. Baina probatu egin be-hariko da zer arau bete ez dituen. Basuriko ikastolako kasuan be-zala, irakaskuntzako arduradun guztien oneritziarekin burututako ekintzak ezin dira hiru andere-ñoen salaketa eta zigor bilakatu. Gehienez ere, beste arduradun horiek erantzun beharko lukete.

Ez dut uste, kaleratzeaz dagoen sententziak gauzak asko aldatuko dituenik, ez behintzat guk nahiko genukeen zentzuan. Bildur naiz, berriz ere irakasleak «errudun»-aterako direla. Hala bada, Hez-kuntzako agintari jaunok, esai-guzue garbi, behin betiko, jolas-torduan gure ikasle txikiak patoria ateratzen utzi behar diegun. Izan ere, dabilaz bezala ibilita, edo-zein momentuan aipatu dezake-te hanka bat edo geldi litezke el-barri. Pis egitera komunera joan behar dutela esaten ditugutenean, utzi egin behar al diegu? Batek daki gaurko une hauek zer egin dezaketek bi minutu horietan!

Eta bien bitartean pedagogia berriaz, aktiboaz eta parte-har-tzaileaz teorizatzen ari direnak, mesedez, norentzat ari ete dira?

Mikel OTAMENDI
(LABeko afiliatua)

López & Pérez.

¿ESTADO CIVIL?
PARADO Y SIN
COMPROMISO

cartas

El tripartito o la
imaginación (sólo)
al poder

En el Tripartito ya no saben qué inventar en su intento de acorralar a HB. Ahora, y ante las próximas elecciones, emplean todas sus energías —menuda campaña se avecina— en procurar que el personal no vote a HB.

Esto no es novedad. Forma parte de sus programas. Pero esta vez —muy hábiles— se han suene-

rado. Promueven y apoyan la formación de candidaturas independientes con el único fin de que HB no alcance alcaldías. Sobre todo en Gipuzkoa. Importante ha de ser el enemigo cuando, en el Tripartito, estrujan hasta tal punto su imaginación. Qué despliegue. Sólo les ha faltado presentarse en coalición. Se han lucido. Se lucen a diario con su peculiar modo de entender la «democracia».

Ardanza, Arzallus, Garaikoc-txea, Bandrés... pretenden anular la razón de otros con su sinrazón. Todo normal, cuando es el miedo el que trabaja por ellos.

A pesar de todo, pienso, parafraseando a alguien, que pueden estar dando un «disgusto maravilloso» a Herri Batasuna. Puede que las bases de los PNV, EA y EE lleguen a sentir vergüenza ajena, ante la interpretación que hacen sus burkudes de la «democracia», y voten a Herri Batasuna.

Al loro, Tripartito. Dirigid vuestro esfuerzo para conseguir votos demostrando lo «buenos» que sois, y olvidados de lo «malos» que son los de Herri Batasuna. Igual ganáis. De nada.

PAPI-Usansolo